



bidelaguna

Zarautz 2030 Plan Estrategikoan zehazten diren helburuen eta erronken partaide bilakatzeko aliantza-hitzarmena.



ZARAUZKO UDALA



OTEITZA
OZEKO POLITEKNIKA

1. TESTUINGURUA

XEDEA

Aliantza-hitzarmenaren xede nagusia da Zarauzko Udala gauzaten ari den **Zarauz 2030 Plan Estrategikoak** jasotzen dituen helburuekin eta erronkekin bat egitea eta, bide batez, zehazten diren helburu eta erronka horiek gauzatzeko prozesuan bidelagun izatea.

ZARAUZ 2030 PLAN ESTRATEGIKOA

Zarauzko Udalak Plan Estrategikoarekin hausnarketa partekatuko prozesua abiatu du. Prozesu honen baitan, etorkizuneko Zarautz irudikatu eta horretara begirako ekintza plana diseinatuko du herritarrekin eta herriko eragileekin.

Agenda 2030eko konpromisoak ardatz hartuta, garapen jasangarriko 17 + 1 helburuak aztertuko dira hiru alor hauek kontuan hartuta: ekonomikoa, soziala eta ingurumena.

Lanketa horrek 3 lan ildo nagusi izango ditu:

1. **Teknikoa**, 2030 Agendako 17+1 Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) eta beren adierazleen araberako azterketa teknikoa.
2. **Partaidetza**, udal barruko ordezkari politiko zein udal teknikariek eta parte herritar norbanako zein eragileekin.
3. **Komunikazioa**, 2030 Agendaren erronka globalak eta hausnarketa prozesua herritarrekin partekatze eta herritarrek prozesuari egiten dizkieten ekarpenak jasotzeko.

Ekaina bitartera arte zabalduko den prozesua lau epetan gauzatuko da:

- Otsaila > Garapen Jasangarrien egoeraren inguruko Zarauzko Diagnostikoa ezagutu eta aberrastea.
- Martxoa > Etorkizunari begira, Zarautzek dituen erronka nagusiak zehaztea.
- Apirila-maiatza > Zehaztutako helburuak lortzen lagunduko duten ekintzak identifikatzea.
- Ekaina > Planaren exekuzioaren jarraipen-modua irudikatzea.



2. HITZARMENA

Aliantza-hitzarmena sinatu duen **Oteiza Lizeo Politeknikoak**, Zarautz 2030 Plan Estrategikoak jasotzen dituen helburu eta erronkekin bat egiten du, eta horretaz gain, jarraian zehazten diren konpromisoak hartzen ditu beregain:

1. **Zarautz 2030 Plan Estrategikoak** zehazten dituen helburuak eta erronkak betetzen laguntzera.
2. Oteiza Lizeo Politeknikoaren jardunarekin lerratzen den Garapen Jasangarriko Helburua (17 + 1) betetzeko urratsak ematea edota gogoeta egitea.
3. Aliantza-sinadura ekitaldian parte-hartzera.
4. Aliantza-hitzarmena irudikatzen duen elementua bulegoan jartzea.
5. Aliantza-hitzarmenaren berri ematea komunikazio euskarrietan (webgunea eta sare sozialak).
6. Langileen/bazkideen artean Zarautz 2030 Plan Estrategikoa azaltzen duen txostenaren formatu digitala (PDF) e-postaz zabaltzera.

Zarauzko Udalak, berriz, helburu betekizun hauek hartzen ditu beregain:

1. Aliantza-hitzarmenaren berri ematea (prentsa-ohar bidez, webgunean eta sare sozialetan).
2. Oteiza Lizeo Politeknikoaren irudia/logoa Zarautz 2030 webgunean txertatzea.
3. Oteiza Lizeo Politeknikoaren izenean, bere ordezkariaren hitzak grabatu eta webgunearen *Zer diote zarauztarrek?* atalean txertatzea.
4. Aliantza-hitzarmena irudikatzen duen elementua, eta behar dituen gainontzeko euskarriak, Oteiza Lizeo Politeknikoaren zerbitzura jartzea.
5. Proiektu amaierako txostenean Bidelagun guztien irudia agertzea.

3. SINADURA

Adostasunaren eta onespeneren erakusgarri, Zarauzko Udalak eta Oteiza Lizeo Politeknikoak, aliantza-hitzarmena sinatzen dute:

ZARAUZKO UDALA

Xabier Txurruka Fernández

Alkatea



OTEIZA LIZEO POLITEKNIKOA

Ion Gurrutxaga

Zuzendaria

Zarauzen, 2022ko ekainaren 8a



ZARAUZKO UDALA



OTEITZA
LIZEO POLITEKNIKOA